

Lontxo Oihartzabal jn.
Juan Carlos Arraibi jn.
Gaizka Gabantxo jn.
José Ramón Kortabitarte jn.
Gonzalo Larruzea jn.
Pilar Ramírez and.
Manu Udaondo jn.

04/02 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2004ko maiatzaren 20ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: Eskolaurreko Hezkuntza ematen duten zentroyen gutxieneko baldintzak ezartzen dituen dekretu proiektuari buruz.

Eva Blanco and.
Idazkari teknikoa.

SARRERA:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Euskadiko Eskola Kontseiluari aurkeztu dio Eskolaurreko Hezkuntza ematen duten zentroyen gutxieneko baldintzak ezartzen dituen dekretu proiektua, ahalik eta azkarren eman dezan kasuan kasuko aginduzko txostena.

I.- AURREKARIAK:

Abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuak, 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzat Haur Eskolak arautzen ditu EAEn behin-behinekoz eta esperimientalki, 2002-03 eta 2003-04 ikasturteetan.

Abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak, Hezkuntzaren Kalitatearenak, Eskolaurreko Hezkuntzari buruzko II. Kapituluari finkatzen duenez, etapa honen xedea hiru urte arteko haurrentzat hezkuntza arreta eta laguntza zerbitzua ematea da, eta erantzen du Autonomia Erkidegoei dagokiela, oinarritzko legeriaren arabera, etapa hau antolatzea eta ikastetxeek bete behar izango dituzten baldintzak ezartzea.

Ekainaren 27ko 828/2003 Errege Dekretuak eskolaurreko hezkuntzaren oinarritzko aldeak zehazten ditu. 5. artikulua xedatzen duenez, autonomia erkidegoei dagokie hiru urte arteko haurrentzat hezkuntza arreta eta laguntza zerbitzua antolatzea eta eskolaurreko hezkuntza eskaintzen duten ikastetxeek bete behar izango dituzten baldintzak finkatzea.

297/2002 Dekretuak, LOCE Legea ezartzearen ondorioz indargabeturik dauden arau batzuk hartzen zituen lege erreferentziatzat, hala nola ekainaren 14ko 1004/1991 Errege Dekretua (24-11-94) araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeek bete behar dituzten gutxienezko baldintzak zehazten dituena. Errege Dekretu hau, abenduaren 15eko 1537/2003 Errege Dekretuak ordezkatu du, eta eskolaurreko etapa alde batera uzten du.

Gauzak honela, Eskolaurreko Hezkuntza etapako ikastetxeak baimentzeko prozesua ahalbidetzen duen arau bat eman behar da.

II.- EDUKIA:

Dekretu proiektu honek, hiru kapitulutan banaturiko 16 artikulua, lau xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor eta azken xedapen bi ditu.

Lehenengo Kapituluak (1-3 artikulua): 1. artikulua dekretuaren xedea zehazten du; 2. artikulua Haur Hezkuntza eman ahal izango duten ikastetxeak zehazten ditu, etapa hori bakarrik zein beste hezkuntza maila batzuekin batera; 3. artikulua ikastetxeen tipologia zehazten du titulartasunaren arabera eta haien izendapena finkatzen du.

II. Kapituluak (4-8 artikulua) ikastetxe hauek, bai orokorrek eta bai adin talde bakoitzari dagozkion berariazkoek ere, bete behar dituzten baldintzak zehazten ditu. Beste alde batetik, 7. artikulua finkatzen du zein den gehienezko haur ratioa unitateko. 8. artikulua ikastetxe hauetan lanean diharduten langileen kualifikazioari buruzkoa da, bai titulazioari dagokionez bai hizkuntza eskakizunari dagokionez, hala nola unitateko profesional ratioari dagokionez ere.

III. Kapituluak (9-16 artikulua) Eskolaurreko Hezkuntzako zentroak irekitzeko eta abian jartzeko baimena emateko prozedura zehazten du. 16. artikulua hezkuntzako ikuskaritzari esleitzen dizkio zentro hauen gainbegiratzea eta kontrola.

Lehenengo xedapen gehigarriak instalazio komuntzat zeintzuk hartuko diren zehazten du, ikastetxe bera beste etapa batzuekin partekatzen duten Eskolaurreko zentroen kasuan. Bigarrenak zehazten duenez, berriz, lokal desberdinetan ematen bada orduan baldintzak bi-bietan bete behar izango dira. Hirugarrenak, eskolaurreko hezkuntza eman dezaten ahalbidetzen die hezkuntza administrazioak deituriko edo homologaturiko espezializazio edo gaikuntza ikastaroak gainditu dituztenei. Laugarrenak xedatzen du Hezkuntza Sailak, landa eremuetan kokaturiko ikastetxeetarako, finkatu ahal izango dituela dekretu honetan zehaztutako baldintzak egokitzeko irizpideak.

Lehenengo xedapen iragankorrak, eskolaurreko hezkuntza emateko baimena ematen die Haur Hezkuntzako lehenengo zikloa emateko baimena duten ikastetxeei. Bigarrena, berriz, baimena lortzeko dekretu honek xedatzen dituen baldintzetara egokitzeko epeari buruzkoa da. Hirugarrenean jasotzen da, hiru urtetik beherako haurrei arreta ema-

ten zieten zentroetan lanean ziharduten langileek zein baldintzatan segitu ahal izango duten lanean.

Lehenengo azken xedapenak ahalmena ematen dio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Sailburuari Dekretua garatzeko behar diren xedapenak emateko. Bigarrenak, dekretuak xedatzen duenaren kontra liratekeen lege mailako xedapen guztiak indargabetzen ditu eta hirugarrenak zehazten du dekretua noiz sartzen den indarrean.

III.- BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

2002ko abenduaren 31n argitara eman zen abenduaren 17ko 297/2002 Dekretua, EAEn behin-behinekoz eta esperimentalki 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzat Haur Eskolak 2002-03 eta 2003-04 ikasturteetan arautzen dituenak. Dekretu honen xedea, zioen azalpenean jasotzen den bezala, hauxe da: *“arestian aipatu dugun Seme-Alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Planean egindako aurreikuspenak betetzea, hala nola, hiru urtetik beharrezko haurrei eskaini beharreko hezkuntza arreta eta laguntzako zerbitzua, Legebiltzarrean egindako eskaerak betetzea eta egungo egoerari erantzun egokia ematea; horretarako, zero urtetik hiru urtera luzatzen den zikloaren helburuak zehaztu behar dira, kalitatezko zerbitzua eskaintzeko baldintzak arautu eta antolatu behar dira, eta zentroen titulartasunak eta erregimena eta baimentze prozesua finkatu. Horren guztiaren helburua da haurrei eskaintzen zaien hezkuntza arretaren eta familiei eskaintzen zaien zerbitzuaren kalitatea ziurtatzea, eta esparru honetako premia berezietara egokitzeako antolakuntza eta kudeaketa malgua duen zentroaren eredia da sustatuko dena”*.

Halaber, xedatzen denez, dekretu honetan zehaztutako guztiak izaera iragankor eta esperimentalak izango du eta 2002/2003 eta 2003/2004 ikasturteetara mugatuko da, tarte horretan eta epea amaitutakoan ebaluazio bat egingo da, eremu horretan azaltzen diren beharrezkoen aurrean ahal den erantzunik egokiena emateko xedeaz. Gainera, eransten zen, dekretuak berak ezarritako aldi iragankorrak dirauen bitartean *“Hezkuntza Administrazioak, plangintza arloan dituen eskumenak erabiliz, plazen eskaintza koordinatuko duela eta horretarako Haur Eskolen Mapa egingo duela”* eta plangintzako irizpideak zehaztu egiten ziren.

2003-2004 ikasturtea amaitzeko zorian dagoela, Euskadiko Eskola Kontseiluak ez daki zertan diren mapa egiteko lanak ez inolako ebaluaziorik egiten ari ote den ere. Hartara, Kontseiluak gai honi buruz dagoen informazio guztia eskatzen du. Era berean, gure iritzian lehenbailehen aurkeztu behar da etapa hau era orokorrean arautuko duen dekretua.

Dena dela, dekretu proiektu honek, Estatuko hainbat araudi indargabetu izanak berekin ekarri duen lege hutsunea bete nahi duela deritzogu, abian diren baimentze prozesuak errazteko, eta orobat, 297/2002 Dekretuaren denbora eremua ikasturte honetan

amaitzen dela kontuan harturik, epe laburrean proiektu berri bat aurkeztuko dela eta Hezkuntza komunitate osoak eztabaidatuko duela.

Proiektuak, oro har, behar adina baldintza jasotzen ditu, izan ere, erreferentzia gisa balio dezaketen antzeko beste dekretu batzuek (1004/1991 ED eta 113/2004 ED) eskatzen dituzten baldintzen maila berdina edo handiagoa du. Alta, bada, atzeman daitezke halaber zenbait hutsune edo disfuntzio artikuluetan:

- **7. artikulua:** adin talde bakoitzari ezarri behar zaizkion ratioak jasotzen ditu, Haur eskolei buruzko aurreko dekretuan jasotzen den gisa berean. Alabaina, adin desberdinetako haurrak unitate berean elkartuz gero, 1/10eko ratio orokor bat ezarriko da honelako kasuetan, Haur Eskolei buruzko Dekretuak, berriaz, 1/7ko ratio zehazten du zero urtetik urtebetera bitarteko adin talderako. Gure iritzian, honelako kasuetan, komeni da ratio honi eustea adin talde honetarako.
- **8. artikulua, 2. atala:** Kontseiluak berriki jaso du HLEA (Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria) sortzen duen dekretu proiektua. Hizkuntza eskakizun hau, HE1en eta HE2ren tarteko maila bat da irakasle ez diren lan kontratuko hezkuntzako langileentzat. Kontseiluak oraindik ere proiektu hau aztertzeke parada izan ez duen arren, onartu egingo da noski, eta etapa honetako irakasle ez diren langileei ezarriko zaie, baldin dekretu honen onarpena ezin atzera badaiteke hizkuntza eskakizuna sortzen duen dekretuaren onarpenaren ondorako, erredakzio zabalagoa egin liteke atal honetan eta bereiz litezke irakasleentzako hizkuntza eskakizunak eta hezkuntza eremuan lanean diharduten irakasle ez diren langileentzat zehaztuko direnen artean.
- **9. artikulua:** Kontseilu honen ustean, izatez 0-2 urteko adin taldeko zentroaren eredu sendotzen ari den arren, eta ikastetxe publiko eta itunpekoetan ere 2 urtekoen gelak sendotzen ari badira ere, kontuan hartuta eztabaida-aldi bat zabalduko dela eta lege aldaketak iragartzen direla, hezkuntza komunitateak eztabaidatu behar luke eskolaurreko zentroaren eredu egokienari buruz. Azkenik, gure iritzian, Eskolaurreko Hezkuntzako zentro bat baimentzeko beharrezko baldintzen artean, gutxienez etapa osoa ezartzeko eskakizun orokorra jaso beharko litzateke dekretu honetan.
- **9. artikulua, 2. atala:** artikulua honen idazkera nahasia iruditzen zaigu, hori dela medio, “aldi bereko” esamoldea kentzea iradokitzen dugu. Kontseilu honen aburuz, plaza bat ezin izan daiteke bi haur desberdinek betetzeko, ordu-tegiak bateragarri egiten baditugu ere.

- **16. artikulua:** etapa honen arautze eta ezarpen unea denez, eta kontuan hartuta Ikuskaritzari esleitu zaizkiola araudia egokiro betetzen ote den eta zerbitzuaren kalitatea gainbegiratzea eta kontrolatzea, zeregin honetarako giza baliabideak eta baliabide materialak gehitu behar direla deritzogu. Ez legoke soberan, Hezkuntzako Ikuskaritzak urtean behin edo bi urtean behin dagoeneko baimendurik dauden zentroen egoerari buruzko txosten bat emateko betebeharra finkatuko balitz, behin-behinekoz bederen.
- Nabaritzen da hezkuntza premia berezidun haurrak integratzen dituzten zentroi buruzko artikulua baten hutsunea, honek jasoko luke hezkuntza Administrazioak zehaztuko dituen giza baliabideak eta laguntzako materialak izango dituztela.
- **Laugarren xedapen gehigarria:** kezkatzen gaitu xedapen honen idazkerak, izan ere, ondoko aukera hau jasotzen baitu: *“Dekretuan zehazten diren baldintzak moldatzeko irizpideak ezartzea landa eremuetan kokaturiko zentroentzat edo hiri eremu finkatueta koentzat, baldintza horiek betetzea zailtzen badute.”* Baldintzak betetzeko salbuespenen aipamena, bereziki **hiri eremu finkatueta ko** zentroi dagokienean, sobera zalantzaragarria da. Iruditzen zaigu salbuespenek argi eta garbi mugaturik egon behar dutela araudian, zeren eta bestela, konparaziozko bidegabekeriak sor baititezke zentroen artean, eta horrela etapa honen arautzea eta kontrola eragotzi.
- **Bigarren xedapen iragankorra:** baimena erdiesteko dekretu honek zehazten dituen baldintzetara egokitzeko epea, LOCE Legearen aplikazio egutegian finkaturikoa da. Orok dakitena da Errege Dekretu hau bertan behera gelditu egingo dela epe laburrean, beraz finkaturiko epea zehaztu gabe gelditzen da. Epe jakin bat ezarri behar litzateke, ez luzeegia. Beste alde batetik, zehaztutako baldintzak, funtsean ez dira urte asko indarrean daraman 1004/1991 Errege Dekretuak xedatzen dituen baldintzen desberdinak.
- **Hirugarren xedapen iragankorra:** Hirugarren atalak ezinbesteko baldintza izan behar luke bigarren atalean aurreikusitakoarentzat. Ez dirudi egokia denik etapa hau emateko baimena ematea titulurik gabeko pertsonen, zentroetan zerbitzua ematen hiru ikasturte badaramatzate ere, 3. atalean jasotzen denaren antzeko prestakuntzaren bat baldintza gisa jarri gabe.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratu da.

Bilbon, 2004ko maiatzaren 21ean
IDAZKARI TEKNIKOA,

Iz.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-onetsia
LEHENDAKARIA,

Iz.Lontxo Oihartzabal

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA
SAILBURUA.

Vitoria - Gasteiz